

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5907

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 16koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria-rena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko saioetan azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen duena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak 2019ko abuztuaren 1eko Ebazpenaz (2019-09-05eko EHAA, 168. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen. Deialdi honi dagokion azterketaldia bukatu ondoren, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda argitaratzen da honen bitartez. Hortaz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Argitara ematea 2019ko abuztuaren 1eko deialdiari dagokion azterketaldian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda.

Bigarren artikulua.– <http://www.ivap.euskadi.eus/2019-2-deialdia/z16-a3hedei/eu/> helbide elektronikoa eta ondoren aipatzen diren lekuetako iragarki-taletan zerrenda horren argitalpena agintzea:

Gasteizen: IVAP, Donostia kalea 1, 01010 PK.

Bilbon: IVAP, Errekalde zumarkalea 18, 48009 PK.

Donostian: IVAP, San Bartolome kalea 28, 20007 PK.

Oñatin: IVAP, Unibertsitateko etorbidea, 20560 PK.

Hirugarren artikulua.– Azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera, interesdunek 8 egun naturaleko epea izango dute egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariari.

Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, epe horretan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak propio prestatutako inprimakia erabili behar da. Erreklamazio-inprimakia ebazpen honen eranskinan eta IVAPen webgunean aurki daiteke.

Erreklamazioak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen edozein egoitzatan aurkeztuko dira. Halaber, erreklamazioak aurkez daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua dioen edozein eratan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 16a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

2019ko abenduaren 31, asteartea

ERANSKINA

ERREKLAMATZAILEAREN DATUAK

1. abizena

2. abizena

Izena

NANa

EGIN DUZUN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

1 2 3 4

JAKINARAZPENERAKO HELBIDEA

Kalea, zenbakia eta solairua

Herria

Posta-kodea

Posta elektronikoa

Telefonia

ESKAERA

Toki gehiago behar baduzu, idatzi atzealdean

Langilearen sinadura

....., 2020ko (a)ren(a).